| **Hornitzaileei ordaintzeko bataz besteko epea/** Periodo medio de pago a proveedores | 38,28 | 36,92 |
| **Ordaindutako eragiketen ratioa/** Ratio de las operaciones pagadas | 37,78 | 34,10 |
| **Ordaindu beharreko eragiketen ratioa/** Ratio de las operaciones pendientes de pago | 38,78 | 39,74 |

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 30931171 C

| | Eurotan/Euros | |
|---|---|---|
| | 2022 | 2021 |
| **Egindako ordainketen guztizkoa/** Total pagos realizados | 432.923 | 220.897 |
| **Egiteke dauden ordainketen guztizkoa/** Total pagos pendientes | 14.501 | 61.040 |

Gainera, irailaren 28ko 18/2022 Legeak aldatutako 15/2010 Legearen hirugarren xedapena gahigarrian adierazten denez, ezarritako gehienezko epean ordaindutako fakturen gaineko informazioa honako hau da:

Adicionalmente, según lo indicado en la disposición adicional tercera de la Ley 15/2010, modificada por la Ley 18/2022 de 28 de septiembre, la información sobre las facturas pagadas en un periodo inferior al máximo establecido, es el siguiente:

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Eurotan ordaindutako diru bolumena/** Volumen monetario pagado en euros | 200.675 | 148.034 |
| **Hornitzaileei egindako diru-ordainketen guztizko ehunekoa** Porcentaje que supone sobre el total monetario de pagos a los proveedores | 46% | 67% |
| **Ordaindutako faktura kopurua** Número de facturas pagadas | 210 | 176 |
| **Hornitzaileei ordaindutako fakturen kopuru osoaren ehunekoa** Porcentaje sobre el número total de facturas pagadas a proveedores | 41% | 54% |

## (13) Zerga-egoera

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, administrazio publikoekiko kobratu eta ordaindu beharreko saldoek honako xehetasun hau zuten:

## (13) Situación Fiscal

Al 31 de diciembre de 2022 y 2021, los saldos a cobrar y a pagar con las Administraciones Públicas presentan el siguiente detalle:

| | Eurotan/ Euros | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **31.12.2022** | | **31.12.2021** | |
| | **Zorduna/** Deudor | **(Hartzekoduna)/** (Acreedor) | **Zorduna/** Deudor | **(Hartzekoduna)/** (Acreedor) |
| **Beste kreditu (zor) batzuk Herri Administrazioekin** Otros créditos (deudas) con las Administraciones Públicas- | | | | |
| **Herri Ogasuna, BEZgatik zorduna/** Hacienda Pública, deudor por IVA | 1.165 | - | 2.450 | - |
| **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergagatiko atxikipenak/** Retenciones practicadas por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas | - | (47.607) | - | (44.676) |
| **Gizarte segurantzako erakundeak** Organismos de la Seguridad Social | - | (25.543) | - | (26.708) |
| **Herri Ogasuna, jasotako diru-laguntzengatik zorduna/** Hacienda Pública, deudor por subvenciones concedidas | 202.745 | - | 172.745 | - |
| | **203.911** | **(73.150)** | **175.195** | **(71.384)** |

Sozietateen gaineko zerga arautzen duen abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 12.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Biosistemak Institutua partzialki salbuetsita dago sozietateen gaineko zergatik. Ildo horretatik, Foru Arau horren 38.1 artikuluak ezartzen du, besteak beste, partzialki salbuetsita dauden erakundeek ez dituztela zerga-oinarrian sartzen beren xede soziala edo helburu espezifikoa diren jarduerak egitetik datozen errentak. Horrez gain, 38.2 artikuluak ezartzen du lehen zehaztutako errentak ez integratzea ez zaiela aplikatuko ustiapen ekonomikoen etekinei edo ondaretik lortutako errentei, ezta eskualdaketen lortutako errentei ere.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 12.2 de la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre que regula el Impuesto sobre Sociedades, el Instituto Biosistemak está parcialmente exenta del Impuesto sobre Sociedades. En este sentido, el artículo 38.1 de dicha Norma Foral establece, entre otros, que las entidades parcialmente exentas no integran en la base imponible las rentas procedentes de la realización de actividades que constituyan su objeto social o finalidad específica. Adicionalmente, el artículo 38.2, establece que la no integración de las rentas detalladas anteriormente, no alcanzarán a los rendimientos de explotaciones económicas, ni a las rentas derivadas del patrimonio, ni a las rentas obtenidas en transmisiones.

Aurrekoaren ondorioz, Sozietateen gaineko zergaren 2022ko eta 2021eko ekitaldiei dagokien zerga-oinarria ia nulua da.

Como consecuencia de lo anterior, la Base Imponible del Impuesto sobre Sociedades correspondiente a los ejercicios 2022 y 2021, es prácticamente nula.

Indarrean dagoen legeriak ezartzen duenez, zergak ezin dira behin betiko likidatutzat hartu agintari fiskalek aurkeztu diren aitorpenak ikuskatzen ez dituzten bitartean, edota lau urteko preskripzio-epea betetzen ez den bitartean. Elkartearen iritziz, etorkizuneko ikuskapenetatik eratorritako pasibo fiskalik espero ez denez, erantsitako egoera-orri finantzarioek ez dute kontzeptu horren ondoriozko pasiborik islatzen.

Según establece la legislación vigente, los impuestos no pueden considerarse definitivamente liquidados hasta que las declaraciones presentadas hayan sido inspeccionadas por las autoridades fiscales, o haya transcurrido el plazo de prescripción de cuatro años. En opinión de la Asociación, no se esperan pasivos fiscales derivados de futuras inspecciones y, en consecuencia, los estados financieros adjuntos no reflejan pasivo alguno por este concepto.

## (14) Sarrerak eta gastuak

Jarraian, 2022ko eta 2021eko ekitaldietako emaitza-kontuetako epigrafe batzuen edukia banakatzen da:

## (14) Ingresos y Gastos

A continuación, se desglosa el contenido de algunos epígrafes de las cuentas de resultados correspondiente a los ejercicios 2022 y 2021:

***Jarduera propioaren sarrerak-***

Epigrafe honen xehetasuna, Biosistemak Institutuaren xedeari dagozkion ikerketa-proiektuak egiteko 2022 eta 2021 ekitaldietan egotzitako dirulaguntza eta dohaintzei dagokiena, honako hau da:

***Ingresos de la actividad propia-***

El detalle de este epígrafe, correspondiente a las subvenciones y donaciones imputadas durante los ejercicios 2022 y 2021 para la realización de proyectos de investigación propios del objeto del Instituto Biosistemak es el siguiente:

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 30931173 C

| | Eurotan/Euros | |
|---|---|---|
| | **2022** | **2021** |
| **Jasotako diru-laguntzak/** Subvenciones recibidas | | |
| **Osasun Sailaren diru-laguntza/** Subvencion nominativa | 675.818,00 | 575.818,00 |
| **Azpiegiturak lagatzeko diru-laguntza/** Subvención cesión de infraestructuras | 35.000,00 | 61.000,00 |
| **Kanpoko diru-laguntza lehiakor finalista/** Subvenciones externas competitiva finalista | 812.313,00 | 1.042.728,00 |
| **Kanpoko diru-laguntza ez-lehiakorrak/** Subvenciones externas no competitivas | 91.146,00 | 91.620,00 |
| **Zerbitzu-emate/** Prestación de servicios | 11.045,00 | 19.083,00 |
| **Norberaren jardueraren diru-sarrerak/** Ingresos de la actividad propia | **1.625.322,00** | **1.790.249,00** |

Kanpoko dirulaguntzak, lehiaketa bidezkoak eta finalistak, batez ere programa hauei dagozkie: Europako Batzordearen Horizon 2020 programa eta Kontsumitzaile, Osasun, Nekazaritza eta Elikadura Agentzia Exekutiboaren (CHAFEA, ingelesezko sigletan) hirugarren osasun programa. Era berean, jasota daude Karlos III.a Osasun Institututik (ISCIII) jasotako dirulaguntzak, Osasuneko Ekintza Estrategikorako haren programakoak.

Las subvenciones externas, competitivas y finalistas corresponden principalmente al programa de la Comisión Europea Horizon 2020 y al Tercer Programa de Salud de la Agencia Ejecutiva de Consumidores, Salud, Agricultura y Alimentación (CHAFEA, en sus siglas en inglés). Asimismo, están recogidas las subvenciones recibidas del Instituto de Salud Carlos III (ISCIII), en su Programa de Acción Estratégica en Salud.

2022ko abenduaren 31n, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagokion dirulaguntza izendunaren zenbatekoa 202.745 eurokoa zen (172.745 euro 2021eko abenduaren 31n), eta honekin batera doan balantzeko "Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak – Administrazio publikoekiko bestelako kredituak" epigrafean erregistratuta dago (13. oharra).

Al 31 de diciembre de 2022, el importe pendiente de cobro de la subvención nominativa, correspondiente a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ascendía a 202.745 euros (172.745 euros a 31 de diciembre de 2021) y figura registrada en el epígrafe "Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar – Otros créditos con las Administraciones Públicas" del balance adjunto (Nota 13).

***Langile-gastuak-***

***Gastos de personal -***

Honekin batera doazen 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiei dagozkien epigrafe honetako saldoaren osaera honako hau da:

La composición del saldo de este epígrafe correspondientes a los ejercicios anuales terminados el 31 de diciembre de 2022 y 2021 adjuntas, es la siguiente:

Foru Seilua
Timbre Foral
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos
N 30931174 C

| | Eurotan/Euros | |
|---|---|---|
| | 2022 | 2021 |
| **Soldatak, lansariak eta baliokidetuak/** Sueldos, salarios y asimilados- | | |
| **Soldatak eta lansariak/** Sueldos y salarios | 913.663 | 857.259 |
| **Gizarte kargak/** Cargas sociales- | | |
| **Enpresaren kargupeko Gizarte-Segurantza/** Seguridad Social a cargo de la empresa | 253.663 | 229.035 |
| | **1.167.326** | **1.086.294** |

*Kanpoko zerbitzuak-*

Hona hemen erantsitako emaitzen kontuaren epigrafe honen osaera 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n:

*Servicios exteriores-*

La composición al 31 de diciembre de 2022 y 2021 de este epígrafe de la cuenta de resultados adjunta, se muestra a continuación:

| | Eurotan/Euros | |
|---|---|---|
| | 2022 | 2021 |
| **Erabilera-lagapenak (6. oharra)/** Cesiones de uso (Nota 6) | 35.000 | 61.000 |
| **Zuzeneko kanpo-zerbitzuak/** Servicios exteriores directos | 399.816 | 620.541 |
| | **434.816** | **681.541** |

## (15) Erakundearen jarduera. Ondare elementuak xede propioetarako aplikatzea. Administrazio-gastuak

## 15. Actividad de la entidad. Aplicación de elementos patrimoniales a fines propios. Gastos de Administración

### (15.1) Erakundearen jarduera

Biosistemak Institutuaren helburu nagusia da osasun-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen kudeaketan eta antolaketan ikerketa sustatzea eta egitea, Osasun Sailaren politikekin bat etorriz. Ildo horretatik, aurrera egin nahi du osasun-politikak eta -zerbitzuak ebaluatzen, esku hartzeko ereduak garatzen, aldaketa barreiatzen eta analizatzen eta osasun-zerbitzuak ezartzen, osasun-sistemaren efikazia, ekitate, efizientzia eta segurtasun handiagoa ahalbidetzeko.

### (15.1) Actividad de la Entidad

El Instituto Biosistemak tiene como fin fundamental promover y realizar investigación en gestión y organización de los servicios de salud y sociosanitarios, alineada con las políticas del Departamento de Salud. En este sentido, busca avanzar en la evaluación de políticas y servicios de salud, el desarrollo de modelos de intervención, la diseminación y el análisis del cambio, y la implementación en los servicios de salud, que permitan una mayor eficacia, equidad, eficiencia y seguridad del sistema de salud.

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 30931175 C

Helburu hori lortzeko, legez ezarritako baldintzak bete ondoren, Biosistemak Institutuaren jarduera zehatzak honako hauek dira:

- Osasun-zerbitzuetako eta zerbitzu soziosanitarioetako ikerketa sustatzea eta garatzea, Osakidetzaren ahalmenak baliatuta eta beste eragile batzuekiko lotura erraztuta.
- Profesionalak trebatzea osasun-zerbitzuetako ikerketan, taldeak sortuta eta arlo horretako ikertzaile gazteen garapen profesionala sustatuta.
- Osasun-zerbitzuei buruzko ikerketaren bidez, aipatutako esparruetan osasun-sistemaren programak eta politikak zientifikoki oinarritzea.
- Ikerketa aplikatua eta translazionala nabarmentzea, balio ekonomikoa eta soziala sortzera bideratuta.
- Ikerketaren emaitzak zabaltzea eta aplikatzea, eta, horretarako, lehentasunez bultzatzea ikerketa aplikatua egin eta praktika klinikora eta osasun-kudeaketara eraman dadin, baita, hala badagokio, osasun publikoko programetara eta gizarte-berrikuntzara ere.
- Beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea, Euskal Autonomia Erkidegoan balio soziala eta ekonomikoa sortzen laguntzeko.
- Elkartearen ardurapeko esparruetan, Euskal Autonomia Erkidegoa eta bertako osasun-sistema nazioarteko erreferente bihurtzen laguntzea.

Para la consecución de dicho fin, previo cumplimiento de los requisitos legales establecidos, el Instituto Biosistemak tiene como actividades concretas las siguientes:

- Promover y desarrollar la investigación en servicios de salud y sociosanitarios aprovechando las capacidades en Osakidetza y facilitando la conexión con otros agentes.
- Capacitar a los profesionales en investigación en servicios de salud creando grupos y fomentando el desarrollo profesional de jóvenes investigadores/as en este campo.
- A través de la investigación en servicios de salud, fundamentar científicamente los programas y políticas del sistema sanitario en los ámbitos citados.
- Énfasis en investigación aplicada y traslacional, con orientación hacia la generación de valor económico y social.
- Difundir y aplicar los resultados de la investigación, potenciando de forma preferente la investigación aplicada y su traslado a la práctica clínica y gestión sanitaria, así como, en su caso, a los programas de salud pública, a la innovación social.
- Colaborar con otros agentes para contribuir a la generación de valor social y económico en el País Vasco.
- Contribuir a posicionar al sistema sanitario y al País Vasco en referente internacional en los ámbitos objeto de dedicación de la Asociación.

Jarraian, 2022ko ekitaldi ekonomikoan zein 2021ekoan Elkartearekin elkartutako erakundeen kopurua zehazten da:
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOKO OSASUN SAILA. Helbidea: Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz. IFZ: S4833001C.
BERRIKUNTZA ETA IKERKETA SANITARIOKO EUSKAL FUNDAZIOA. Helbidea: Azkue kalea 1 (Bilbao Exhibition Centre-ko Dorrea), 48902 Barakaldo. Euskadiko Fundazioen Erregistroan 132 zenbakiarekin inskribatutako erakundea. IFZ: G-01341353.
OSAKIDETZA – Euskal Osasun Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari atxikia. Lege bidez sortutako erakundea da. Helbidea: Araba kalea 45, Vitoria-Gasteiz). IFZ: S-5100023-J.

A continuación, se detalla el número de entidades asociadas a la Asociación, tanto en el ejercicio económico del año 2022 como en el 2021:
DEPARTAMENTO DE SALUD DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAIS VASCO, con domicilio en C/Donostia-San Sebastián 1, de Vitoria-Gasteiz, y provista de NIF nº S4833001C.
FUNDACION VASCA DE INNOVACION E INVESTIGACION SANITARIAS, domiciliada en Barakaldo 48902, Ronda de Azkue 1 (Torre del Bilbao Exhibition Centre), entidad inscrita en el Registro de Fundaciones de Euskadi con el número 132 y provista de NIF nº G-01341353.
OSAKIDETZA-Servicio Vasco de Salud, adscrito al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, entidad

Foru Seilua
Timbre Foral
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos
N 30931176 C

Bazter utzi gabe aurreko paragrafoan deskribatutako jarduerak, Biosistemak Institutuak, bere helburuak betetzeko, eskubidea izango du:

- Mota orotako jarduera ekonomikoak egiteko, bere helburuak betetzera edo xede horretarako baliabideak biltzera bideratuta.
- Era guztietako ondasunak eskuratzeko eta edukitzeko, edozein tituluren bidez, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egiteko.
- Era guztietako egintzak baliatzeko, legeekin edo bere estatutuekin bat etorriz.

Biosistemak Institutuak ikuspegi hau du: "Nazioartean erreferente izango den ikerketa aplikatuko eta translazionaleko institutu gisa kokatzea, osasun-politika eta -zerbitzu berriak, prozesuak eta antolamendu-ereduak garatu, ezarri eta ebalua daitezela sustatuko duena. Horretarako, aldaketaren kudeaketa erraztea, osasun-zerbitzuetako ikerketa-lana gidatuta".

Horretarako, Biosistemak Institutua zeharkako lau ikerketa-arloren inguruan egituratzen da:

a) Osasun-arloko eta arlo soziosanitarioko politikak eta esku-hartzeak diseinatzea eta ebaluatzea.
b) Prozesua eta emaitzak aztertzea eta ebaluatzea.
c) Antolamendu-ereduak garatzea eta ebaluatzea.
d) Erabakiak hartzeko laguntzak.

Ikerketa-arlo nagusi horien esparruan, identifikatutako 4 ildo estrategikoak eta horietako bakoitzean 2022 ean gauzatutako jarduera nagusiak honako hauek izan dira:

1. **<u>Posizionamendua eta lidergoa osasun-zerbitzuen ikerketan</u>**

**1.1.- Europako proiektuak:**

Euskal Osasun Sistema Publikoaren (EOSP) internalizazioaren eta Europako posizionamenduaren esparruan, Biosistemak Institutuak Europako hiru proiektu koordinatu ditu 2022an. UPRIGHT eta ADLIFE proiektuak Europako Batzordearen Horizon

creada por Ley, con domicilio en C/Álava, 45 de Vitoria-Gasteiz, y provista de NIF nº S-5100023-J.

Sin perjuicio de las actividades descritas en el apartado anterior, el Instituto Biosistemak, para el cumplimiento de sus fines podrá:

- Desarrollar actividades económicas de todo tipo, encaminadas a la realización de sus fines o allegar recursos con este objetivo.
- Adquirir y poseer bienes de todas clases y por cualquier título, así como celebrar actos y contratos en todo género.
- Ejercitar toda clase de acciones conforme a las Leyes o a sus Estatutos.

El Instituto Biosistemak tiene como Visión "Posicionarse como un Instituto de investigación aplicada y traslacional referente a nivel internacional, que promueva el desarrollo, implementación y evaluación de nuevas políticas y servicios de salud, procesos y modelos organizativos. Facilitando la gestión del cambio, liderando la labor investigadora en servicios de salud".

Para ello, el Instituto Biosistemak se configura en torno a cuatro áreas de investigación transversales:

b) Diseño y evaluación de políticas e intervenciones en salud y sociosanitario.
c) Análisis y evaluación de proceso y resultados.
d) Desarrollo y evaluación de modelos organizativos.
e) Ayudas a la toma de decisiones.

En el marco de estas áreas de investigación principal, las 4 líneas estratégicas identificadas, así como las principales actuaciones llevadas a cabo en cada una de ellas en el año 2022 han sido:

1. **<u>Posicionamiento y liderazgo en investigación servicios de salud.</u>**

**1.1.- Proyectos Europeos:**

En el ámbito de la internalización y del posicionamiento europeo del Sistema Sanitario Público Vasco (SSPV), el Instituto Biosistemak ha coordinado en el año 2022 tres proyectos europeos. Los proyectos UPRIGHT y ADLIFE son proyectos

Foru Seilua
Timbre Foral
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos
N 30931177 C

2020 deialdiko proiektuak dira. Hirugarren proiektua JADECARE Baterako Ekintza da, Kontsumitzaile, Osasun, Nekazaritza eta Elikadura Agentzia Exekutiboarena —Consumers, Health, Agriculture and Food Executive Agency (aurrerantzean CHAFEA)—.
Europan hiru proiektu horiek koordinatzea mugarri bat da Biosistemak Institutuarentzat, bai maila teknikoan, bai administratiboan. Izan ere, Europako 60 erakunderen baino gehiagoren jardueren koordinazioa kudeatzen da, 16 milioi euroko aurrekontu globalarekin.

Institutuak Europako proiektu hauetan parte hartu du 2022an:

UPRIGHT: Gazteen erresilientzia-ahalmena handituz ikastetxeetan ongizate mentala sustatzea eta gaixotasun mentalak prebenitzea du helburu, gazteak, haien senideak eta irakasleak kontuan hartuko dituen esku-hartze holistikoa ezarrita. 7 bazkideko partzuergoa da, eta 3,8 M euroko aurrekontua du. Proiektu hau 2021eko abenduan amaitu zen, eta 2022ko lehen hiruhilekoan Europako Batzordeari aurkeztu zitzaizkion azken txosten teknikoa eta ekonomikoa. 2022an, halaber, bilera egin da Hezkuntza Sailarekin, Osasun Sailarekin eta Berritzegunearekin, UPRIGHT programaren transferentzia egiteko. Azkenik, EAEko ikastetxe publiko eta itunduetarako Bizikasi programan, UPRIGHT programaren elementuak txertatu dira Berritzegune Nagusiaren ekimenez eta Hezkuntza Sailaren laguntzarekin.

ADLIFE: Proiektu berritzailea da, eta helburu du Europako bederatzi herrialdetan gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten adinekoen osasuna eta bizi-kalitatea hobetzea. Biosistemak Institutuak Europako 11 erakunderentzat koordinatzen du proiektu hau Europa mailan. ADLIFEk sei herrialde eta osasun-sistematan zabalduko du gidaritza: Euskadi (Osakidetza), Erresuma Batua (NHSL Lanarkshire), Danimarka (Southern Denmark), Alemania (Werra-Meißner Kreis), RJH-Suedia (Region Jämtland Härjedalen) eta Israel (Maccabi Healthcare Services). Osakidetzan 10 ESIk eta Zuzendaritza Nagusiak ere parte hartzen dute.

de la convocatoria Horizon 2020 de la Comisión Europea. El tercer proyecto es la Acción Conjunta JADECARE de la Agencia Ejecutiva de Consumidores, Salud y Alimentación (Consumers, Health, Agriculture and Food Executive Agency, en adelante CHAFEA).
La coordinación a nivel europeo de estos tres proyectos supone un hito para el Instituto Biosistemak, tanto a nivel técnico como administrativo dado que se gestiona la coordinación de las múltiples actividades de más de 60 entidades europeas con un presupuesto global de 16 millones de euros.

Los proyectos europeos en los que ha participado el Instituto a lo largo del año 2022, son los siguientes:

UPRIGHT: Tiene como objetivo promover el bienestar mental y prevenir enfermedades mentales en los centros educativos a través del aumento de la capacidad de resiliencia de los jóvenes, implementando una intervención holística que contemple a jóvenes, sus familiares y profesores. Se trata de un consorcio de 7 socios y cuenta con un presupuesto de 3,8 M Euros. Este proyecto finalizó en diciembre del año 2021, y en el primer trimestre del año 2022 se presentaron a la Comisión Europea los informes finales técnico y económico. También en el año 2022 se ha realizado la reunión con el Departamento de Educación, Departamento de Salud y Berritzegune para la transferencia del programa UPRIGHT. Finalmente se han incorporado de elementos del programa UPRIGHT en el programa Bizikasi para centros educativos públicos y concertados de la CAE, a iniciativa de Berritzegune Nagusia con apoyo del Departamento de Educación.

ADLIFE: Es un proyecto innovador, que busca mejorar la salud y la calidad de vida de las personas mayores con enfermedades crónicas avanzadas en nueve países europeos. El Instituto Biosistemak coordina este proyecto a nivel europeo a 11 entidades europeas. ADLIFE desplegará el pilotaje en seis países y sistemas de salud que incluyen Euskadi (Osakidetza), Reino Unido (NHSL Lanarkshire), Dinamarca (Southern Denmark), Alemania (Werra-Meißner Kreis), RJH-Suecia (Region Jämtland Härjedalen) e Israel (Maccabi Healthcare Services). A nivel de Osakidetza participan 10 OSIs y también la Dirección General.

2022an garatutako jardueren artean, nabarmentzekoak da garatutako plataformen azken erabiltzaileekin (osasun-profesionalak eta pazienteak) baterako sorkuntza-lana, baita honako hauen osagai digitalak garatu izana ere: ADLIFE (planak kudeatzeko plataforma), pazientea ahalduntzeko plataforma eta erabakiak hartzen laguntzeko zerbitzuak (prebenitu daitezkeen egoeretarako arriskua aurreikusteko ereduak barne).

Entre las actividades desarrolladas en el año 2022 destacan la Co-creación con los usuarios finales (profesionales sanitarios y pacientes) de las plataformas desarrolladas. También el desarrollo de los componentes digitales de ADLIFE: Plataforma para la gestión de planes, Plataforma para el Empoderamienteo del Paciente, Servicios de apoyo a la toma de decisiones, incluyendo modelos de predicción de riesgo para situaciones potencialmente prevenibles.

JADECARE: Baterako ekintza hau Europar Batasuneko Hirugarren Osasun Programak (2014-2020) finantzatua da. Hiru urteko iraupena du eta Biosistemak Institutuak koordinatzen du Europan eta Estatuan. Estatu kideen eta Europako Batzordearen artean batera finantzatutako ekintzen helburua EBko estatu kideen arteko lankidetza bultzatzea da. Europako 17 herrialdetako 48 erakundek parte hartzen dute proiektu honetan. Osasun Ministerioak 2019an Biosistemak Institutua izendatu zuen Espainian baterako ekintza honen erakunde onuradun eta sinatzaile bakar gisa.
Garatutako jardueren artean, nabarmentzekoa da 2022ko urriaren 26an eta 27an Bizkaiko Bizkaia Accelerator Tower BAT dorrean, Bilbon, Europako partzuergoaren urteko bilera antolatzea, 99 parte-hartzailerekin. Era berean, jatorrizko hiru jardunbide egokiak transferitzeko "Thematic workshops" lantegi tematikoak (Katalunia, Alemania eta Danimarka) antolatzen lagundu da.

JADECARE: Esta Acción conjunta está financiada por el Tercer Programa de Salud (2014-2020) de la Unión Europea. Tiene una duración de tres años y está coordinado a nivel europeo y a nivel estatal por el Instituto Biosistemak. Las Acciones Conjuntas co-financiadas entre los Estados Miembro y la Comisión Europea, tienen como objetivo favorecer la colaboración entre los Estados miembros de la UE. Este proyecto cuenta con la participación de 48 organizaciones de 17 países europeos. El Ministerio de Sanidad nominó al Instituto Biosistemak en el 2019 como el organismo beneficiario y signatario único en esta Acción Conjunta a nivel español.
Entre las actividades desarrolladas destacan la organización de la reunión anual de consorcio europeo el 26 y 27 de octubre del 2022 en la torre Bizkaia Accelerator Tower BAT de Bizkaia en Bilbao, con asistencia de 99 participantes. También el apoyo en la organización de los Talleres Temáticos "Thematic workshops" para la transferencia de las tres Buenas Prácticas Originales (Cataluña, Alemania y Dinamarca).

GATEKEEPER: Proiektuak ebidentzia eman nahi die asistentzia-kalitateari eta osasun-emaitzei, datuen erabilera masiboaren bidez, AA adimen artifizialeko teknologien, Big Dataren eta datuen analitikaren bidez. Helburua da gaixotasunak eta desgaitasunak goiz detektatzea, sintomak ulertzea eta diagnostiko goiztiarra egitea, baita jarraipen etengabea eta pertsonalizatua erraztea ere. Medtronic Iberica SAk koordinatzen du eta 43 bazkide ditu. Proiektu honetan Osakidetzak ere parte hartzen du, onuradun gisa, baita Biogurutzeta Bizkaia Institutuak ere, Osakidetzari lotutako hirugarren parte gisa.

GATEKEEPER: El proyecto pretende proporcionar evidencia en lo que a calidad asistencial y resultados de salud se refiere, mediante el uso masivo de datos a través de las tecnologías de IA, Big Data y la analítica de datos. El fin es la detección temprana de enfermedades y discapacidades, comprensión de los síntomas y diagnóstico precoz, y facilitar el seguimiento continuo y personalizado. Está coordinado por Medtronic Iberica S.A. y cuenta con 43 socios. En este proyecto participa también Osakidetza como beneficiario y el Instituto Biocruces Bizkaia como tercera parte asociada a Osakidetza.

SCIROCCO EXCHANGE: Proiektu honen helburua da jardunbide egokiak ebaluatzea eta alderatzea, Europako beste eskualde batzuetako osasun-sistemen

SCIROCCO EXCHANGE: Este proyecto tiene por objeto evaluar y comparar las Buenas Prácticas a través de una herramienta para el escalado y la

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 30931179 C

ezagutzak eskalatzeko eta transferitzeko tresna baten bidez. Asmoa da proiektu hau arreta integratuaren ildo estrategikoarekin guztiz lerrokatuta egotea. Partzuergoa 14 erakunde elkartuk osatzen dute, eta haren koordinatzailea NHS 24 da. Proiektua 2022ko maiatzean amaitu zen.

transferencia de conocimientos de los sistemas de salud de otras regiones europeas. Se pretende que este Proyecto vaya perfectamente alineado con la línea estratégica de atención integrada. El Consorcio está compuesto por 14 entidades asociadas, siendo el coordinador del mismo NHS 24. El proyecto finalizó en mayo del 2022.

YOUNG 50: Proiektu honen helburua da gaixotasun kardiobaskularren prebentzioa sustatzea, "Cardio 50" detekzio-eredua transferituta. Programaren 12 hilabete luzatzea eskatu da, eta gaur egun hedatze- eta egikaritze-fasean dago. 2022ko jardueren artean, inplementazio-esperientzia ebaluatzeko plana garatu izana nabarmentzen da.

YOUNG 50: Este proyecto tiene como objetivo promover la prevención de enfermedades cardiovasculares mediante la transferencia del modelo de detección "Cardio 50". Se ha solicitado una extensión de 12 meses del programa y se encuentra actualmente en la fase de despliegue y ejecución. Entre las actividades del 2022 destaca el desarrollo del plan de evaluación de la experiencia de implementación.

JANE: 2022ko urrian hasitako proiektua. JANE baterako ekintzak zazpi ezagutza-sare berri prestatu eta sortu nahi ditu minbiziaren arretaren funtsezko arloak betetzeko, Europan eskuragarri dauden baliabide onenak esparru espezifiko bakoitzean bilduta, minbiziaren eremuko sare nazionalei eta zentro integralei laguntzeko. Ezagutza-sare berriek baliabideak eta ebidentziak emango dituzte osasun-arretan eta erabaki klinikoak hartzean, ikerketan (klinikoa, translazionala eta epidemiologikoa), artearen egoera zehaztean eta praktika klinikoaren jarraibideetan, eta profesionalen eta pazienteen prestakuntzan, eskura dauden baliabideetarako sarbide ekitatiboa ziurtatuta eta politika publikoetan eragina izanik; hori guztia EBren inbertsioa eta ikuspegia maximizatzeko eta horiei forma emateko, ikerketa-azpiegiturari eta plataformei dagokienez.

JANE: Proyecto iniciado en octubre del 2022. La Acción Conjunta JANE pretende preparar y crear siete nuevas Redes de Conocimiento para cubrir áreas cruciales en la atención del cáncer, reuniendo los mejores recursos disponibles en Europa en cada campo específico, con el fin de apoyar a las Redes Nacionales y Centros Integrales de Cáncer. Las nuevas Redes de Conocimiento proporcionarán recursos y evidencia en atención sanitaria y toma de decisiones clínicas, investigación (clínica, traslacional y epidemiológica), en la definición del estado del arte y las directrices de la práctica clínica, en la formación de profesionales y pacientes, asegurando el acceso equitativo a los recursos disponibles, y teniendo efecto en las políticas públicas, todo ello para maximizar y dar forma a la inversión y visión de la UE en términos de infraestructura de investigación y plataformas.

Azkenik, 2022ko ekitaldian, Biosistemak Institutuak bederatzi proposamen berri aurkeztu ditu eta horien lanketan eta aurkezpenean lagundu du, Europako Batzordeak abiarazitako Horizon Europe deialdietan.

Finalmente, en el ejercicio 2022, el Instituto Biosistemak ha presentado y contribuido en la elaboración y presentación de nueve nuevas propuestas a las convocatorias Horizonte Europa lanzados por la Comisión Europea.

**1.2.- Karlos III.a Osasun Institutuaren proiektuak:**

**1.2.- Proyectos Instituto de Salud Carlos III:**

Estatu-mailan, ikerketa finantzatzeko tresna nagusia Karlos III.a Osasun Institutuaren deialdiak dira, eta I+G+B-ko Estatuko Planaren Osasuneko Ekintza Estrategikoaren (OEE) bitartez bideratzen dira. OEEa

A nivel estatal, el principal instrumento de financiación de la investigación son las convocatorias del Instituto de Salud Carlos III, a través de la Acción Estratégica en Salud (AES) del Plan Estatal de I+D+i. La AES se ejecuta a través de una única convocatoria

Foru Seilua
Timbre Foral
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos
N 30931180 C

lehiaketa bidezko urteko deialdi bakar baten bitartez egikaritzen da, eta Estatuko programen urteko jarduketa-programak garatzen ditu.

competitiva anual y desarrolla los programas de actuación anuales de los diferentes Programas Estatales.

Biosistemak Institutuak Ikerketa Kooperatiboko Sare Tematikoa (RETIC) koordinatu du, Gaixotasun Kronikoen arloko Osasun Zerbitzuetako Ikerketarako (REDISSEC). Euskaditik koordinatutako sare tematiko bakarra da, eta 2022ko abenduan amaitu da.

El Instituto Biosistemak ha coordinado la Red Temática de Investigación Cooperativa (RETIC) sobre Investigación en Servicios de Salud en Enfermedades Crónicas, REDISSEC. Es la única Red Temática coordinada desde Euskadi y ha finalizado en diciembre del año 2022.

2022an RICAPPS abiarazi da, Karlos III.a Osasun Institutuaren 2021eko Osasuneko Ekintza Estrategikoaren barruan, RICORS (Osasun Emaitzetara Bideratutako Ikerketa Sareak) azpiprogramaren deialdian diruz lagunduta. RICAPPSen helburu orokorra da maila nazionalean sareko ikerketa sustatzea, lehen mailako arretako osasun-emaitzetara, kronikotasunera eta osasunaren sustapenera bideratuta.

En el año 2022 se ha lanzado la RICAPPS, subvencionada en la convocatoria del Subprograma RICORS (Redes de Investigación orientadas a Resultados en Salud), dentro de la Acción Estratégica en Salud 2021 del Instituto de Salud Carlos III. El objetivo general de la RICAPPS es promover la investigación en red a nivel nacional orientada hacia los resultados de salud en atención primaria, cronicidad y promoción de la salud.

Xedea da emaitzak praktika klinikora eta osasun-zerbitzuetako erakundeetara transferitzea, eta, horrela, herritarrentzako osasun-arretaren hobekuntza bermatzea. Asmo hori bat dator Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiako Estrategiaren Osasuna, Aldaketa Demografikoa eta Ongizatea Erronkaren eta Europar Batasunaren Europa Horizontearen helburuekin. Sare horrek Next GenerationEU funtsen finantzaketa dauka, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.

El fin es transferir los resultados a la práctica clínica y a las organizaciones de servicios de salud, y garantizar así la mejora de la atención sanitaria para la población. Este propósito se alinea con los objetivos del Reto Salud, Cambio Demográfico y Bienestar de la Estrategia Española de Ciencia, Tecnología e Innovación, y Horizonte Europa de la Unión Europea. Esta red cuenta con la financiación de los Fondos Next GenerationEU para la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

Era berean, Biosistemak Institutuak 2018ko deialdiko sei proiektu eta 2022ko deialdiko beste bi kudeatzen ditu, eta horiei gehitu zaie 2020ko aurrekontuko COVID19 – FUNTSAren deialdian lortutakoa, deialdi honetan: "SARS-CoV2 birusa ikertzeko proiektu eta programetarako zuzenean emateko dirulaguntzak".

Asimismo, el Instituto Biosistemak gestiona seis proyectos de la convocatoria 2018 y otros dos de la convocatoria 2022, al que se une el conseguido en la convocatoria del FONDO – COVID19 del presupuesto 2020, convocatoria: "Subvenciones de concesión directa para proyectos y programas de investigación del virus SARS-CoV2".

**1.3.- ZTBP 2030 proiektuak – Eusko Jaurlaritzaren proiektuak:**

**1.3.- Proyectos PCTI 2030-Proyectos Gobierno Vasco:**

Euskal erakundeei dagokienez, ikerketa eta berrikuntza nagusiki sustatzen dira 2020ko Osasuneko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategiaren bidez. Estrategia hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2020 Planaren barruan dago (ZTBP 2020). Espezializazio adimendunaren estrategiak

A nivel de las Instituciones Vascas, el fomento de la investigación y la innovación se realiza de manera principal a través de la Estrategia de Investigación e Innovación en Salud 2020, enmarcado dentro del Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2020, PCTI 2020. La estrategia de especialización inteligente

Foru Seilua
Timbre Foral
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos
N 30931181 C

(Research & Innovation Smart Specialisation Strategy – RIS3), Euskal Autonomia Erkidegoko zientzia, teknologia eta berrikuntzaren sistemarako egungo esparrua denak, helburu du euskal gizartearen ongizatea, hazkunde ekonomiko jasangarria eta enplegua hobetzea, espezializazio adimendunean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren eraginkortasunaren hobekuntzan oinarritutako ikerketa- eta berrikuntza-politika baten bidez.

Biosistemak Institutuak, bere ikerketa-taldeen bidez, 2019tik 2021era bitarteko deialdietako bost proiektutan lan egin du 2022an. Era berean, beste lau proiekturen aldeko ebazpena jaso du. Horiek 2022ko deialdiari dagozkio.

Biosistemak Institutuaren proposamen berrietan 45 ikertzailek parte hartu dute 2022an.

**1.4.- Lankidetza-sareak:**

Euskal Osasun Sistema Europa mailako erreferente gisa kokatzeko, 2022an zehar, Biosistemak Institutuak nabarmendu duen jardueretako bat izan da BIOEFi laguntzea bizialdi osoko zahartze aktibo eta osasungarriaren arloan Euskadi Europako Erreferentziazko Gune izateko hautagaitza prestatzen. 2022ko urriaren 10ean, Bruselan egin zen "Reference Site Awards" (Erreferentziazko Guneen Sariak) banatzeko ekitaldia. Euskadiko ordezkaritza batek, Osasuneko sailburua, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko zuzendaria eta Biosistemak Institutuko zuzendaria buru zirela, Euskadi ordezkatu zuen ekitaldian. Sailburuak jaso zuen Euskadiri emandako lau izarreko saria: deialdiaren laugarren edizioan izendatutako Europako kalifikazio gorena. Nabarmentzekoa da Biosistemak Institutuak egindako lana deialdia prestatzeko ardura duen lantaldean eta proposamenak ebaluatzeko fasean ere.

Era berean, 2022an, Biosistemak Institutuak lortu egin du, Osasun Sailarekin batera, osasun-sistemak eraldatzeko Europako lankidetza-prozesu berriaren ("Transforming Health Care Systems") bazkideetako bat izatea, Europa mailan Italiako Osasun

(Research & Innovation Smart Specialisation Strategy – RIS3), marco actual en referencia al sistema de ciencia, tecnología e innovación en el País Vasco, tiene como misión mejorar el bienestar, el crecimiento económico sostenible y el empleo de la sociedad vasca mediante una política de investigación e innovación basada en la especialización inteligente y la mejora de la eficiencia del Sistema de Ciencia, Tecnología e Innovación.

El Instituto Biosistemak por medio de sus grupos de investigación ha trabajado durante el año 2022 en cinco proyectos de las convocatorias 2019 a 2021. Asimismo, ha recibido una resolución favorable a cuatro proyectos más correspondientes a la convocatoria 2022.

El número de investigadores participantes en las nuevas propuestas del Instituto Biosistemak a lo largo del año 2022 ha sido de 45.

**1.4.- Redes Colaborativas:**

Con el fin de posicionar el Sistema Sanitario Vasco como referente a nivel europeo, a lo largo del 2022, una de las actividades destacadas por el Instituto Biosistemak ha sido la colaboración y soporte a BIOEF en la preparación de la candidatura de Euskadi como Sitio de Referencia Europeo en el envejecimiento activo y saludable a lo largo de la vida. El 10 de octubre de 2022, en Bruselas, se celebró la ceremonia de entrega de los premios, "Reference Site Awards" (Premios Sitios de Referencia). Una delegación de Euskadi, liderada por la Consejera de Salud, la Directora de Investigación e Innovación Sanitarias, y el Director del Instituto Biosistemak representaron a Euskadi en el evento. La Consejera fue la encargada de recibir la distinción de cuatro estrellas otorgada a Euskadi, máxima calificación europea designada en la cuarta edición de la convocatoria. Cabe destacar, la labor realizada por el Instituto Biosistemak también en el Grupo de Trabajo responsable de preparar la convocatoria y en la fase de evaluación de las propuestas.

Asimismo, en el 2022 el Instituto Biosistemak ha conseguido ser uno de los socios junto con el Departamento de Salud del nuevo Partenariado Europeo sobre transformación de los sistemas de salud ("Transforming Health Care Systems"),

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 30931182 C

Ministerioak koordinatuta, eta 60 erakundek baino gehiagok osatutako partzuergoa izango du. Lankidetza honen helburua da osasun- eta asistentzia-sistema jasangarriagoak, efizienteagoak, iraunkorragoak, berritzaileagoak eta kalitate handikoak lortzeko trantsizioan laguntzea, pertsonengan zentratuta, inklusiboak eta guztiontzako irisgarriak.

Balioan Oinarritutako Medikuntza ("Value-Based HealthCare", VBHC, ingelesezko sigletan) kontzeptu berria da, eta gero eta osasun-sistema eta ospitale gehiago ari dira txertatzen kontzeptu hori ohiko jardun klinikoan. Eredu horrek oinarri hartzen du pazienteek jakinarazitako emaitzak neurtzeko sistemak ezartzea, asistentzia-jarduna prozesu edo baldintza klinikoen inguruan antolatzea eta paziente bakoitzeko kostuak kalkulatzea.

Ildo horretatik, Biosistemak Institutua bi ikaskuntza-komunitateren zuzendaritza teknikoa koordinatzen eta gauzatzen ari da. Komunitate horietako bat Europakoa da (VOICE), eta bestea Estatukoa (EIIMPROVE), eta horietan balioan oinarritutako arreta-eredua jorratzen da (Valued Based Healthcare, VBHC), ICHOMek hainbat gaixotasunen inguruan argitaratutakoa.
2022an, Biosistemak Institutua urtero egiten den ICHOM Osasun Emaitzak Neurtzeko Nazioarteko Kongresuaren batzorde antolatzaileko kide izan da. Kongresuak aurten 10. urteurrena ospatu du Bostonen (AEB). Biosistemak Institutuak ere parte hartu zuen ekitaldian, VOICE Europako Ikaskuntza Komunitatearen inguruan antolatutako saio espezifiko batean.
2022 honetan, hautatua izan da, halaber, "Health of Glance 2023"rako egingo den bularreko minbiziaren adierazleei buruzko azterlaneko bazkide metodologiko gisa. Gainera, Biosistemak Institutuak "Measuring Health Outcomes and Experiences from a Patient's Perspective" liburu elektronikoaren lanketan parte hartu du. Bertan, VOICE proiektuari buruzko kapitulu bat sartu da.

2. **Bikaintasun zientifikoa**

Honako emaitza hauek lortu dira jarduera zientifikoko hainbat esparrutan:

coordinado a nivel Europeo por el Ministerio de Salud de Italia y que contará con un consorcio formado por más de 60 entidades. EL objetivo de este partenariado es contribuir a la transición hacia sistemas sanitarios y asistenciales más sostenibles, eficientes, resistentes, innovadores y de alta calidad centrados en las personas, inclusivos y accesibles a todos por igual.

La Medicina Basada en el Valor, ("Value-Based HealthCare", VBHC, por sus siglas en inglés) es un nuevo concepto que cada vez más sistemas de salud y hospitales están incorporando a la práctica clínica habitual. Este modelo se basa en implementar sistemas de medición de resultados reportado por los pacientes, organizar la práctica asistencial entorno a procesos o condiciones clínicas y calcular los costes por paciente.

En este sentido, el Instituto Biosistemak está coordinando y llevando a cabo la dirección técnica de dos comunidades de aprendizaje, uno europeo (VOICE) y otro estatal (EIIMPROVE) en el que se aborda el modelo de atención basada en el valor (Valued Based Healthcare, VBHC) publicado por ICHOM en diferentes enfermedades.
En el año 2022, el Instituto Biosistemak ha sido parte del Comité organizador del Congreso Anual ICHOM, el Congreso Internacional de Medición de Resultados de Salud que este año ha celebrado su 10° aniversario en Boston (EEUU). El Instituto Biosistemak también participó en el evento en una sesión específica organizada sobre la Comunidad de Aprendizaje Europea VOICE.
